

DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIA 1960

Etzuen ifork lanik bialdu eta urte bete luzatu zan lanak aurkeztutzeko epea.

TORIBIO ALZAGA TEATRO-SARIA 1961

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oiñarriak aukeratu dira:

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke teatro-lanak.
- b) Gaia nai dan bezelakoa izan ditekera, eta lanak norberak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulua.
- d) Gutxienez ordu bete irauin bear izango du eta ekitaldi bi izan. Izkribuak makina idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora behera).
- e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu eziña.
- f) Saria, gabe gelditu ditekera egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.
- g) Batzarrea Bizkaiko Ahorro Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez lanak bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkari batek parte hartuko du.
- h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6, Bilbao) 1961-gko. uztailaren 20-a baiñu leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

EUSKAL-SARIKETEEN AMAR URTETIK AMABOST URTERAKO NESKA-MUTIL BIZKAITARRENTZAT (1961-rako)

1.—Euskaltzaindiak sariketa bat imintean dau Bizkaiko neska-mutilentzat. 1961-gko. maiatzean egingo da adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amabost urtera izan bear dira. Zimentarriak oneik dira:

2.—Sariak izango dira:

- a) Amabi urtetik amabost urtera dituezanentzat: 600 pezetako sari bat; bi 400 pezetako; 350 pezetako bat; iru 300 pezetako; bost 250 pezetako; sei 200 pezetako; eta sei 150 pezetako.